

BAZTANDIK

M A R I A N O I Z E T A

Baztandarrak Aita Jose Antonio Donostia-koa gogoan daukagu. Euskaldun zintzoa zen eta gure Baztan-go zoko hau beti bere bihotzean. Harek egin zituen lanak guzien gainekoak dira, merezimendu haundikoak, yakitate eskatzen duten lan nekosoak aztertuz, kanta zaharren doñuak beren solasekin, hoiek guziak ongi antolatzen, zer lanak eta zer nekeak yasan ote zituen Aita Donostiak Yaun Agurgarriak, nola ibiltzen ote zen baserriz baserri baztandar euskaldun yendeen artean eta zeñen poliki hartzen zaben euskal kanta baztandarrak aspaldion zokoratuak zaudenak eta erdi atzenduak, hoiek guziak argitaratuz beren soñu eta bertsoekin. Gure haur denboran eta aunitzez lehenago ere aritzen zen zoko guziak arakatzen eta ea erdi hilik zauden kanta zaharrak berpizten. Nik ezagutu ditut Aita Donostia-rekin egon ziren zenbait yende, berek zakiten kanta zaharrak gure fraile ospetsuari erakusten. Hoiere artean aipa ditzadan, Modesta Biguria elizondarra, Paz Salaburu hau ere elizondarra eta Bolaños aranaztarra bainan Elizondon bizi zena. Gizon hau bertsolaria zen eta Aita Donostiak aunitz maite zuena. Gizon huni hartu zion kanta hunkigarri hura gero Aita Donostiak musikara pasa eta argitaratu zuena. «NIK BADITUT MORTUETAN». Aipatu ditudan hiru yaun-andre hoiek nik ezagutu ditut eta nik ere Modesta Biguria-ri zenbait erranairu baztandar hartu nizkion eta bai zenbait ohitura zahar, gaur galduak direnak Aita Donostiak gure txistulari Antonio Elizalde eta Joxe Telletxea-rekin bazituen har-emanak eta Aita Hilario Olazaran lagun zuela, zenbat lan egin ote zituen gure baztandar soñulariekin, Baztan-go folklorea aztertzen eta indar-berritzen, zoko ilunetik ateratzen eta kanpora argitaratzen. Aita Donostiak egin izan ditu hitzaldiak eta garrantzi haundikoak, mutil-dantzeta eta irri-dantzeta mintzatuz. 1933-ko urtean Bilbon izan ziren Baztan-go mutil-dantzariak eta Aita Donostia ere gure dantzarierekin batean aurkezle zutela. Baztandar dantzariere erakutsi zituzten mutil-dantzak eta irri-dantzak eta Aita Donostiak hitzaldi yakintsu bat eginik, Bizkaiko hiri nagusian agertu zuen Baztan-go folkloeraren edertasuna, mutil-dantzaren sustriak ongi aztertuz eta dantza mota guziak dakarraten izenburua. Garrantzi haundikoa izan ornen zen Aita Donostiak eman zuen erakaspena, eta ederra ere Baztan-go mutil-danzariere agerpena. Arrakasta haundiko emankizuna Bilbon.

Gero urte andana bat erbesteraturik, bainan beti lanean goi-mallako musikakin eta Euskalerrari ohore emanez. Gero berriz gure artera etorria eta 1942-garren urtean Elizondo-ko korala sortu zelarik Aita Donostia hemen ginuen.

Berak moldatutako kanta xarmangarriak Elizondo-ko koralak kantatzen zituen eta oroitzen naiz nola erraten zuen, bere kantak Elizondo-ko abeslariak agertzen zutela zuzen eta berak nahi zuen bezala.

Kanta hoiien artean ditugu: «Aitak eta Amak», «Herriko minez», «Yeiki Yeiki», «Aran Lore», «Una Planeta», «O Jesu mi dulcissime», «Lo violi de San Francesco», «Oracio per a obtenir l'amor» eta gehiago ere. Aita Donostia-ren lanik haundienetako bat dugu, «Misa pro defuntis». Elizondo-ko koralak aunitz aldiz erakutsi du meza eder hau eta leku askotan. Aita Donostia-ren ohoretan eta elizkizunetan, Donostian, Zaragozan, Barzelonan, Lekarotz-ko Konbentuan, Elizondon eta defuntuen mezetan batez ere. Gainera Elizondo-ko koralak badauzka Mezaren dizkak eta koralak eginak.

Elizondo-ko korala 1942-garren urtean sortu zen Juan Eraso yauna Gidari eta koralararen sortzale izan dela. Urte aunitz iragan dira eta oraindikan gure kolarak irauten du eta Eraso beti gidari. Beraz, Elizondo-ko koralak badauzka 43 urte beteak. Gure kantari Taldea sortu zelarik, Aita Donostia ere ginuen laguntzale eta geroztik gure fraile ospetsuaren kanta zoragarriak beti eta kontzertu guzietan kantatzen dira, bizpairu bai aldiero. Ziur eztaikit 43 urte hauetan zenbat kantaldi egin ote duen bainan hirueun bai seurik eta holaxe Aita Donostia-ren obrak bertze hainbertzetan agertu izanen dira. Euskalerrri guzian, Frantzian, Espainian, Erroman, Austrian, Beljikan, Alemanian, Ingalaterran, Gales-en, Afrikan Joanesburgon, eta hoietan guzietan Aita Donostia-ren euskal kanta zoragarriak mundu guzian edaturik.

Aita Donostia joan zitzaigun, lekutu zen mundu huntatik, Yaunak bereganatu zuen, bainan bere euskal izpiritua euskalzale guzien bihotzetan kokaturik dago. Bere erakaspén yakingarriak eta bere sendimendu miresgarria gure euskal kantetan utzi dizkigu, argi eta garbi, herriaren izpiritua gorasko ezarririk. Gu ere yoanen gara bainan Aita Donostia-ren abesti zoragarriak mendez mende iraunen dute eta gure maixu ospetsuaren izena ere gure ondokoek ohoratuko dute eta holaxe mundua suntsitu arte. Ez dugu utziko aipatu gabe Aita Donostia-ren inguruan ibili diren ospe haundiko Aita Kaputxino Yaun Agurgarriak, euskalzale zintzoak eta Euskalerrriaren alde lan izigarria egin zutenak: Aita Hilario Olazarán txistularien maixu, txistua eta euskal musikaren alde lan miresgarria eginik.

Aita Polikarpo Iraizoz-koa Yaun Agurgarria, euskal idazle aipagarria, gure maixu, yakitate haundiko Yauna, Euskalerrriaren alde garrantzi haundiko lanak egin zituena.

Hiru Yaun ospetsu: Aita Donostia, Aita Hilario eta Aita Polikarpo. Ohore zueri, gorespen eta laudorio. Zerutik zaindu Euskalerrria.

NIK BADITUT MORTUETAN ARDIAK ARTZAINAREKIN;
ITXASUAN AMAR ONTZI BEREN MARIÑELEKIN;
KATALUNIAN AMAR MANDO ZILLAR MONEDAREKIN.

BAZTANGO TXISTULARIEN KONDAIRA

Joan den mendeko txistulari zaharrenetakoa eta izen haundikoa ere, erraten dutenez Jose Anjel Dorremotz aniztarra dugu. Honek bere aintzinekoenganik ikasiak, mutil-dantzak, soka-dantzak eta Baztan-go gainerako dantza guziak, gero berak bertzeei erakusteko. Bai omen zuen bertze anai bat hau ere soñulari. Beraz, Dorremotz anaiak ditugu gure soñularien kon-dairan zaharrenetakoak.

Denbora hartakoak ditugu ere, Juan Leon Ustaritz Elizondoko txistu-lari 1896 urte inguruan. Baita ere urte hoietan eta gero ere dugu Bizente Pe-rotxena elizondarra hau ere nere ama zenaren denborako txistularia. Den-bora hartan bertze herrietan ere izaten ziren txistulariak eta beren herrietan igandero yotzen zutenak eta denek baztandar dantzetan eta bakotxak beren soñu bereziarekin, denbora hartan beti izaten baitziren soñu desberdinak. Gure dantzetan ere izaten omen ziren Txistulari batetik bertzera zenbait soñu desberdin, bai mutil-dantzetan eta bai soka-dantzetan ere Denbora hartakoak ere dira, Juan Felix Urrutia Erratzuarra eta bere herriko txitula-ria, Zipriano Iribarren «Xamar» arizkundarra, biak lagunak eta elkarre-kin aunitz aldiz yotzen zutenak, batez ere Erratzu-ko bestetan. Gero dugu Juan Migel Jaurena «Pixu» deitzen ziotena, hau Arizkun-go txistularia gure mende honen hasieran. Txistulari arronta omen zen eta guti zakiena. Badira oraindik arizkundarrak «Pixu» zena ezagutu zutenak eta bai «Pixuk» yotzen zuen soñuarekin dantzatu ere, jota eta «purrusalda» bakarrakin aritzen omen zen atsalde guzian, bertzeik ez baitzakien. Nik nere adiskide zaharrei entzuna. Beraz, 1895 eta 1905 urte hoietan ditugu: Dorremotz anaiak, Juan Leon Ustaritz, Bizente Perotxena, Juan Felix Urrutia, Zipriano Iribarren «Xamar», eta Juan Migel Jaurena «Pixu». Hoiiek guziak «solfeorik» gabe yotzen zuten, denbora hartako soñulari aunitzek bezala.

Orain gure oroitzean ezagutu ditugunak eta bai dantzatu ere hoién mu-til-dantzekin eta gañerako soñuekin. Denen gaiñetik aipa ditzagun Antonio Elizalde Aniz-en sortua eta gero Amaiur-era etorria eta azkenik Arizkun-era aldatua eta bere lagun Joxe Telletxea Erratzu-ko txitularia eta hor urte aunitz bizi ondoren Arraioz-era joana. Bi txistulari hauen denboran nabari da baztandar dantzen pizkundera batez ere mutil-dantzan. Gure haur denbo-ran eta gero ere Antonio-ri Amaiur-ko txistularia deitzen zioten. Gero Ariz-kun-go egin zen. Antoniok eta Joxek berpiztu zuten mutil-dantza. Antoniok bildu zituen han-hemenka Baztan guzia arakatuz, galduak eta erdi atzen-duak ziren mutil-dantzak, dantzari zaharretaik eta txitulari zaharretaik ere ikasiak. Badakigu Joxe Telletxeak, «Xamar» enganik ikasi zituela zenbait mutil-dantza eta holaxe bien artean bildu zituzten Baztan-go mutil-dantzak han-hemenka barreiatuak zaudenak. Gero denbora hartakoa dugu ere An-tonio Olondriz elizondarra, Elizondo-ko plazan yotzen zuena, hau gure haur denborakoa. Olondriz-ek bazakien solfoea eta musikaria zen Elizon-do-ko musika taldean.

Telletxeak eta Antonio Elizalde, maixuak izan dira eta lan haundia egirik gazteei erakusten aritzen ziren eta holaxe piztuarazi galduak zauden dantzak.

1918-an izan ziren Oñaten Baztan-go mutil-dantzariak Antonio Elizalde txistulariakin. Urte hartan Oñaten ospatu omen ziren euskal besta haundiak eta dantzari baztandarrak gure lurraldetik behinere ateratzen ez zirenak harat joan ziren. Dantzari talde horren argazkia bada nonbait bainan hoietatik inor ez da bizi, denak zenduak dira. Oñaten gure mutil-dantzak erakutsi zituzten. 1929-an gure baztandar dantzariak Barzelona-ko Exposizionera joan ziren gure mutil-dantzak erakustera, hortaz ederki oroitzen naiz. Taldea osatzen zuten, arizkundarrak, erratzuarrak, elizondarrak eta amaiurtarrak. Txistulariak Antonio Elizalde eta Joxe Telletxea ziren eta atabalaria Manuel Jaurena. Taldearen gidaria Manuel Arburua Elizondokoa. Hoiek guzietatik gehientsuenak hilak dira. Egun batzuk pasa zituzten eta bai ederkixko erakutsi ere gure mutil-dantza jatorrak. Antonio eta Joxe txistulariak bazuten zenbait mutil dantzetan zenbait pauso eta itzuli desberdin, adibidez «zozoarena» deitzen dugun dantzan. Orduan elkar harturik eta Baztango mutil-dantzari guziak ere ados zirela, «zozoarena» zuzendu zuten eta Barzelonan holaxe dantzatu zuten. Barzelonan izan zirenak denak dantzari onak ziren eta ongi hautatuak. Orduko argazkiak ere badira. Orain hamabortz mutil-dantza hoiek, sokadantza, irri-dantzak, zortzikoa eta «gait» deitzen duguna ere, denak ongi osatuak gelditu dira. Antonio eta Joxe txistulariak izan dira batasunaren egile. Aita Donostia eta Aita Hilario izan dira ere hoiengandik laguntzale berdingabeak. Txistulari aipagarri hoiengandik dugu Maurizio Elizalde, Antonioren semea bere aitarengandik ikasiak orain dantzatzen ditugun mutil-dantzak eta irri-dantzak. Haundia izan zen bere aita bainan semea ere aita bezala maixu eta dantzari. Mauriziok pasa zituen solfeora mutil-dantza eta irri-dantza guziak eta horrek badu merezimendu Aita Donostiak lagundu zion Maurizio-ri lan aipagarri hortan Hameka urte zituelarik omen zion hasmenta bere ofizioari Gero txistulari bezala lan izigarria egin du eta oraindik ere herriz herri dabil bere lagun Felix atabalararekin. Mauriziok badaramazki 59 urte soñua yotzen, txistulari ona eta bere aita zenaren erakaspengandik ongi ikasiak, mutil-dantza guziak, soka-dantza, irri-dantzak, sagar-dantza eta gainerako dantzak badakizki, denen doñuak eta nola dantza. Beraz, maixu da eta erran dezakegu Baztan-go berrogeita hamar urtez azpiko mutil eta gizon gehienak Maurizio-ri esker ikasi dutela mutil-dantza. Baztan-go txistularien kondairan inork ez du txistulari bezala hainbertze iraun. Eta oraindik ere bere 70 urtekin sasoin ederrean dabil. Txistulari ospetsua Euskalerrri guzian ezaguna.

Bertze txistulari bat ere badugu, Gregorio Ustaritz «Exponda», hau ere arizkundarra eta Amaiur-ko txistulari hainbertze urtez. Baditu hogeitatu urte hilik.

Gure haur denboran Elizondo-ko txistularia Franzisko Olaetxea ginen. Iruriten ere bazuten txistularia, Migel Mari Garate, hau ere gure gazte denborakoa. Almandoz-ko txistularia Tomas Bidegain zen gure gazte denboran eta mutil-dantzak ere angiz yotzen zituen. Hau ere aspaldion hila

bertze aitzineko bi hoiek bezala. Santiago Errotaberea, hau Bozate-koa eta Azpilkueta-ko txistularia izana. Bizi da. Gure gazte denboran ere bazen bertze bat, Fermin Santxotena erratzuarra eta Elizondoko txistularia izana. Honek denbora guti iraun zuen eta Arjentina-ra joanik, han bizi da. Iruriten ere bazen bertze bat, Santiago Jaimerena txistulari ona. Hau gerra ondoko txistularia ginuen eta mutil zintzoa. Zoritxarrez gazterik hil zen.

Jose Mari Sagastibelza eta Paskual Larunbe biak lekautarrak, 1932-ean hasi ziren Elizondo-ko plazan soñua yotzen. Gero gerra eta zoritxarrez Paskual Larunbe hor hil zitzaigun. Gero gudua bukatu ondoren berriz txistulariak. Jose Mari Sagastibelza, orduko Elizondon bizi zena eta bertze elizondar bat Fermin Barno, hasi zitzaizkigun Elizondo-ko plazan eta biak elkarrekin eta Pako Amorena atabalari zutela, urte batzuz gure herria alaitu zuten. Zoritxarrez Fermin Barno hil zitzaigun, guti iraun zuen.

Jose Mari Sagastibelza bakarrik gelditu zen eta lan aunitz egin ere gazte eta haurren artean, mutil-dantzak erakutsiz. Holaxe iraun zuen aunitz urtez Elizondo-ko txistulari bezala. Hau ere berriki zendua.

Oraindikan irauten dutenen artean aipa ditzagun denen gaineratik Maurizio Elizalde. Hunen aipamenak aioxion eginik, ager ditzagun bertze gainerakoak.

Arizkun-go «Elkartasuna» dantzari taldearen txistularia dugu Jabier Larralde, Baztan-go dantza guziak arras ongi menderatuak dauzkanak, maixu eta dantzari ona. Aspaldiko txistularia hau ere. Arizkun-go da eta denbora batez Amaiur-ko txistularia izana. Lan handia egiten du Arizkun-en dantzari-talde ederra eginik.

Zigan ere izan ditugu txistulariak, bat Manuel Etxalar eta bertzea Lorentzo Igoa. Hauek aspaldion dute txistua utzia.

Berroeta-ko txistularia ginuen Ziriako Antxorena bere gazte denboran bere herrian soñulari. Gero Arjentina-ra joan zen eta han bizi da.

Tiburzio Almenar Iruriteko txistularia, hau ere aspaldikoa da eta Irurite-ko dantzari taldearen txistularia.

Manuel Biguria elizondarra oraingo txistularia, Maurizio-ren ikasle eta aunitz aldiz Lantz-ko inautetan ibilia bere maixu Maurizio-rekin eta Felix atabalariarekin. Orakunde egunean ere Elizondo-ko haurren bestan soñulari. Azkenik hemen dugu bertze gazte bat, txistulari ona eta hau ere Maurizio-ren ikasle; Agustin Eraso txistulari Txapelketa batean saritua.

Baztan-go txistularien kondaira agertu dugu, ehun urte hauetan izan ditugun guziak.

Gure baztandar dantzak denbora batez ez ziren Baztan-go lurraldetik ateratzen eta beti gure sor-lekuan gorderik, mutil-dantza eta soka-santzaeren soñuak mendiaren oihartzunak bakarrik ihardesten zuela. Erran dugu lehenagoko denboretan gure dantzariak Oñaten, Barzelonan eta Bilbon, izan zirela. Ohargabeen utzi dut erran gabe Barzelonan bi aldiz izan direla. Lehenbiziko aldia mende hunen hasmentan izan omen zen 1903 inguruan erraten dutenez eta orduan gure dantzari baztandarrak Juan leon Ustaritz omen zu-

ten txistularia. Barzelonan «Feria de Muestras» delako ikusgarri haundiak ospatzen omen ziren garai hartan eta baztandarrak deituak izan ziren Barzelona-ra gure mutil-dantzak erakustera. Zaldizko orgetan edo kotxetan joan omen ziren eta etorri ere hain segur.

Orain maiz ibiltzen dira gure dantzariak Euskalerrian gaindi. Duela hamabost urte hasi ginen han-hemenka gure mutil-dantzakin eta bai Baztango izena ere ezagutzera eman. Orain Arizkun-go «Elkartasuna» dantzari-taldea gogor ari da Baztan-go dantzen alde eta toki aunitzetara deitzen dute. Aurtengo udan Alemanian izan ziren, Dantzari Biltzar haundi batean eta han ere gure dantzariak erakutsi dute Baztan-go folklorea.

Gure dantzak irautekotan norbaitek behar du lana egin, txistulariek eta dantzen irakasleek. Lehenago eta orain ere beti izan dira dantzak erakusteko maixuak. Oroitzen naiz nola gure haur denboran duela hirurogei urte, baginuela Elizondon mutil-dantzari on bat eta hortan ere maixu. Remijio Lizasoain bere izena eta zurgingoan aritzen zena. Garai hartan Elizondon gaztetxoan artean dantzari-talde bat antolatu zuten eta Remijio ginuen talde horren sortzaile eta maixu.

Baditu berrogeitamar urte eta gehiago ere hilik. Bai omen zen denbora batez bertze maixu bat ere eta aunitz zakiena, bainan hunen berririk ez dugu, badakigu Manuel Danbolin deitzen ziotela.

Etxeak eta deiturak ere badira gure soñulariekin aunitz ikustekorik dauzkatenak.

Adibidez: «DANBOLINENEA» Elizondoko etxe baten izena. Horrek adierazten du etxe hortako nagusia txistularia zela. Badira ere deiturak gisa berekoak: DANBORIENA, Etxalar-ko deitura diotenez eta aunitz edatua Baztan alde huntan ere. Erran dut Elizondon badela etxe bat «DANBOLINENEA» deitzen dena bainan Bozaten ere bada bertze bat izen berakin. Horrek erran nahi du Baztanen soñulariak izan direla eta ez bat bakarrik.